

## EUSKAL ZINEGINTZARAKO BITARTEKARI BAT BILATZEN DU ATALANTE-K

CNC- Akitania Berria Eskualdea hitzarmenaren kariatara, ZINEGINTZARAKO BITARTEKARI bat bilatzen du Baionako Atalante zinematik, euskal zinegintzaren inguruko jarduera garatzeko.

Arte eta entseguko 3 pantailako elkarte zinegela da Atalante, molde modernoan eta lagun giroa bermatzeko gisan hornitua. Europar eta mundu osoko zinegintzak, lan berezi bat eramanez euskal zinegintzaren hedapenaren inguruan, balioan ezarriz aniztasunari bihurtu programazio markatu eta handinahia defenditzen du. Irudiaren heziketa arloari arrunt bihurturik, *École et cinéma* eta *Maternelle et cinéma* dispositiboaren koordinatzailea da Atalante 64 departamenduan eta Zineskolaren gidaritzan parte hartzen du. Dispositibo hau euskarazko eskola elebidun eta murigiltze sistemakoei zuzendua zaie.

Zuzendatritza eta programazio taldeak ikuskaturik, euskal zinegintzaren inguruko kultura ekintzak plantan ezartzen ditu bitartekariak, gelaren arte eta entsegu ildoarekin loturan (gaualdi eta filmen aurkezpena, gelako eztabaiden animazioa, eskuhartzaileen harrera).

II.Irudi heziketa arloko ekintzak euskaraz garatuko ditu.

II.Docketan Topa (Atalanteren udaberriko festibala) garaian antolatua den Hemendik mikro-egoitzaren jarraitzeaz eta antolaketaz arduratuko da.

II.Ekintza hauen komunikazioan parte hartzen du eta egitura, euskal hedabide eta partaideen aitzinean ordezkari dezake.

II.Joan-etorriak erregulari buru ditzake, mugazgaidiko egitasmo batzuek garatzeko edo eskoletako haurrentzat agerpenak egiteko.

II.Dirulaguntza dosieren egiten laguntzen du eta eramandako ekintzen jarduera bilanen segipenez arduratuko da.

II.Zinegelako taldearekin, elkarteko bulegoko kideekin, beneboloen taldearekin, zinegela kide den sareekin eta hezkuntza, kultura, hedabide eta lurraldeko egituretako solaskideekin lankidetzan arituko da.

II.Zinegelaren eguneroko funtzionamenduari lotu betebeharrak batzuk segurtatuko ditu.

### Gaitasunak

- > Euskara idatziz eta ahoz menderatzea (B2). Frantsesa idatziz eta ahoz menderatzea. Gaztelera aski ongi edo ongi jakitea.
- > Lasai egotea mintzatzeko eta idazteko gaitasunak edukitzea
- > Hoberenean zinegintzaz, honen lanbideez, besteak beste hedapena eta ustiapenez ezagutza zerbait ukaitea
- > Tresna numerikoak ongi menderatzea
- > Aintzintze eta inizatiba gaitasuna, harreman onekoa izatea.
- > B gida baimena edukitzea

### Lanpostuaren baldintzak

Plangintzaren arabera, asteroko 35 orduko kontratu mugagabea (CDI). Noizbehinka gaez edo asteburuetan lan eginez.

Hilabete saria: 2 000 euro gordin hilabetean, 13 hilabetez, negozioa daitekeena esperientzaren arabera. Baionan (Atalante Zinegelan) kokatua den ustiapen zinematografikoaren hitzarmen kolektiboa. Noizbehinkako joan-etorriak (Euskal Herrian)

## Egutegia

Hautagaitzak otsailaren 25a arte

Elkarrizketak martxoko lehen hamabostaldian

Apirilaren 1ean hasteko

> Motibapen gutuna (frantsesez eta euskaraz) eta CV bat (frantsesez) ondoko helbidera igor

[candidature@atalante-cinema.org](mailto:candidature@atalante-cinema.org)

Atalante linean [atalante-cinema.org](http://atalante-cinema.org) | [Instagram](#) | [Facebook](#)